

## BEZERO SEGMENTUA

Bezerao edozein motatakoa izan daiteke, gizonezko zein emakumezkoa, altu edo baxua, zabal edo estua. Arrabolen neurriak denentzat berdinak izateak abantaila hori ekarriko baitigu. Gainera, errepideko, ziklokroseko zein mendiko bizikletak erabiltzeko aukera ematen digu arrabolak, honela, bezero mota batere mugatu gabe.

Gure produktua txirrindularitza taldeei edo txirrindulari partikularrei egongo da bideratua. Euskal Herriko, espainiar estatuko zein beste edozein herrialdetako erabiltzaileentzat. Gipuzkoako probintzian talde asko aurki ditzakegu bezero posible lirategenak, baina ez Gipuzkoan soilik, Euskal Autonomia Erkidegoan ere talde asko topa ditzakegu eskualde honetan txirrindularitzarekiko dagoen zaletasunari esker.

Etorkizunera begira lortu nahiko genukeen helburuetako bat, Europa mailan zein mundu mailan txirrindulari talde handienek gure produktua erabiltzea izango litzateke.

